

## BALIO PROPOSAMENA

Produktu hau sortzearen helburua, metodo tradizionalekin apurtzea da, eta ikuspuntu berritzaile bat gehitzea, izan ere, hutsune bat dagoela ikusi dugu. Gure produktua ez da behar edo arazo zehatz bati aurre egiteko sortu, baizik eta ekarpen teknologiko bat egiteko haurren aisialdiarekin zerikusia duten eremuetan edo espazioetan. Beste produktu edo zerbitzu batekin bereizten gaituena hurrengo da: haurraren ongizate eta beharrak asetzeko eginda dagoela eta uste dugula etorkizun batean onura handiak ekarriko dizkiola haurrei; bai alderdi sentsoerietatik, eta baita alderdi motoretatik. Gainera, horrela, irudimena sustatzen dute eta haien garapena lortzeko baliozkoa dela uste dugu. Zerbait berria denez, eta inoiz ikusi ez den produktu bat denez, produktu hori eskaintzen lehenengoak izan nahi dugu.

Gure produktua merkatura ateratzen denean ospe handia izango duela pentsatzen dugu, gaur egungo egoerara moldatutako produktu bat delako; teknologia aurrera doan heinean guk ere aurrera egin behar dugulako. Gainera merkaturan ez da honelako produkturik eskaintzen, hare gutxiago haurrei zuzendutakoa. Honekin batera, erabilerraztasuna duen produktu bat da, hau da, nahiz eta teknologia arloan esperientzia gutxi izan gure produktua erabiltzeko gai izango da pertsona oro.

Gure zerbitzu edo produktua une oro eskuragarri egongo da bezeroentzako. Alde batetik, web orriaren bidez gurekin kontaktuan jarri eta erosi ahal izango dute, bestetik, gauzak ondo joan ezker, aurreago denda fisiko bat izango dugu, bertan bezeroak zuzeneko erosketara egiteko aukera izango dute.

Produktuaren prezioari dagokionez, esan beharra dago ez dela eskuragarri izango edozein poltsikoetarako. Nahiz eta hau horrela izan, etorkizunean diru hori amortizatuko da. Honen harira, aipagarria da, gure produktua kalitate handikoa izango dela, izan ere mundu mailan dagoen teknologia arloko enpresa handi batekin lan egingo dugu. Beraz, nahiz eta hasieran gastu handi bat suposatu, gastu hori kalitatearekin bat dator, eta inbertsio bat bezala ikus daiteke.

Bezeroak hainbat arrazoiengatik egongo dira ordaintzeko prest, azkenean gure produktua azaltzerakoan konturatuko dira gure produktua onurak ekarriko dizkiela haurrei, hala nola, irudimena sustatu, garapen sentSORIALA..., baita haurren aisialdirako eta etorkizunerako produktu garrantzitsua eta egokia izango delako, bai haurren garapenerako eta bai hezkuntzarako. Bezeroei hau azaldutakoan, uste dugu konturatuko direla gure produktua haurrengan hobekuntzak ekarriko dizkiela eta arrazoi horregatik interesa izango dute gure produktuarekiko.

Gure proiektua berritzailea da haurren aisialdirako bideratuta eta bezeroek arazo tekniko bat edukitzen badute online bidez edo gure denda arazoa guri komunikatzeko aukera izango dute.

Gure zerbitzua erabilera erreza duen produktu bat da, jadanik, mando batekin soinuak, irudiak, argi maila desberdinak... jarri daitezke adibidez. Hau, produktu batean beharrezkoa dela uste dugu eta gure bezeroek nahiz eta teknologian adituak ez izan edo ideia gutxi izan, erabiltzen jakitea garrantzitsua da.